

# Nafarrokaria

Nafarroako gehigarria / Ostirala, 1994ko abuztuaren 26a / IV. urtea / 141. zenbakia

## Herri kirolak Donapaleun

Duela berrogei urte sortu zen, Donapaleu inguruko herri eta baserrien artean izaten ziren norgehiagokak abiapuntutzat harturik, ekitaldi bat egiteko asmoa. Inguruko herriak bildu, eta lehia bizia antolatu zen denen artean, urtean behin egiten zena. Hainbeste urteren buruan, ekitaldia Nafarroa Behereko herri nagusiko ikuskizunik erakargarrienetakoa da bertara hurbiltzen diren turistendako, baina bertakoek ez omen dute hain begi onez ikusten, kultura eta folkloreaken arteko muga aspaldian gainditu zelakoan. Nolanahi ere, Donapaleu herri kirolen inguruan urterik urte antolatzen duten ikuskizuna ederra izaten da. Orga jokoak, lasto altxaketak, fardelak... baserriko

joko guztiak lehian, Zuberoa eta Nafarroa Behereko herrien artean. Iaz Urdiñarbe izan zen garaile, eta joan den igandean jokaturako ekitaldian Donazaharre nagusitu zen beste guztien gainetik. Garaipenak baino, hala ere, Zuberoa eta Nafarroa Behereko herrietako taldeak elkartu eta giro ederreko lehiaketa egin izanak badu bere balioa.



Jendeketa bildu zen Donapaleun joan den igandean.

HUR GOROSTIAGA

### Putre gudariak

**H**ala uste genuen, putreak baldar eta traketsak zirela. Hain fama txarra duten hegazti hauek haizeak mugitu egin behar dituela haiek bakarrik moldatzeko gai ez direlako... Eta orain jakin izan dugu hegazkinak eroriarazten dituztela. Bakar bakarrik gainera, inoren laguntzarik gabe, Bardeetan barna dabilzan F-16ak lurrera bota ditzaketela erreztasun osoz.

Zortzi kilo dituzten txoritxo hauek holako traste ezezaguen

naren aurka jotzen dutenean krixtoaren ikara hartuko zutelakoan ginen; putre gixajoak, holako kolperik jasotzen hiltzea ez dela bukatzeko modua uste genuen.

Eta orain badirudi ez dela lehendabiziko aldia —Armada Zerbiztu Sekretuaren ikerketeei esker jakin ahal izan dugunez— zeren behin baino gehiagotan gudako abioiak helburu nagusia izan dira putre kamikazeendako: azken urte hauetan saiek hamabost eraso

### Lur deslaia

PILI YOLDI



egin omen dituzten urtero eta zenbait misiotan porrot egin arren, hiru piloto eta hiru abioi, bi F-4 eta F-16 bat, erori izan dira Bardeetan. Eta herbesteetan? Israelek abioi gehiago galdu omen du hegaztien erruaz, arabiarren aurka izan dituen bost guda latzetan baino. Jope! Eta guk jakin gabe putreen estrategia Estatu arazo larria dela! Hau jakinda ez gintuzke harrutuko ekologista edo Armadaren aurkako jende hauek atzean egoteak. Aire Armadaren susmoaz, Bardeetan dauden jenlekuak animalia hilez beterik omen dituzte Poligo-

noaren aurkakoek, haien putre-kamikazeak ongi ordainduta izan daitezten. Hirurogei mila ardi baino gehiago Bardeetan barna eramaten dituzten artzaiekin ados egongo al dira ahalik eta abere hil gehiago uzteko?

Estatu Espainiarraren Europako putreen ehuneko laurogeia baldin badago —bi mila Anchurasen, beste bi mila Bardeetan eta abar— gudako abioi guztiak akatzea agian ez ote dute helburu izanen? Seguru haien putre-gudariak entrenatzeko tokiak ere badituztela hor barna Poligonoaren aurkakook...

### ERAKUSKETAK

**Personajes Navarros, mitos y leyendas** izeneko Angel Elviraren margo erakusketa atzo zabaldu zen Burlatako Udaltxeko kultur Aretoan. Erakusketa irailaren 11ra arte egongo da ikusgai. Hilarion Eslava eta Pablo Sarasate dira erakusketa honetako protagonista batzuk. Mito eta istorioen artean, 'Osasunaren iturria' eta 'Aintzirako lorea' izenekoak berreskuratu ditu, besteak beste, Angel Elvira margolariak.

**Sagrario San Martin** margolariaren erakusketa zabaldu zen abuztuaren 16an eta hilaren amaiera bitartean, Nafarroako Aurrezki Kutxaren Kultur Aretoan egongo da ikusgai. Erakusketa ikusi nahi duenak, egunero arratsaldetan eta asteburutan, berri, goizetan izango du aukera.

### ANTZERKIA

**Trokolo** antzerki taldeak Nabaskoizen 'Colombina enamorada' bere obra antzetzuko du gaur, arratsaldeko 8etan. Bihar Biurrunera eramango du obra berbera eta ordu berean antzetzuko du. Igandean, Erron taularatuko dute 'Colombina enamorada' eguerdiko ordubatean.

**Gwynfyd** antzerki taldeak 'La Danza del Guerrero' antzerki-dantza ikuskizuna eskainiko du Irurtzango Foru plazan, gaur gaueko 9.30etan. Ekitaldi hau, hain zuzen ere, Udako Kultur Programazioaren barru antolatuko dute.

**Toquinho** abeslariak kantaldia eskainiko du datorren asteartean Altsasun, gaueko 10etan kiroldegian. Nafarroako Jaialdien barruan, Munduko Musikak izeneko zikloari hasiera emango dio Toquinhok. Asteazkenean, berri, leku eta ordu berean, Kanda Bongo Man izango da protagonista ziklo honetan. Honen atzetik, ostegunean, Cheb Mamik auerkeztuko du bere emanaldia eta zikloari amaiera emanez, ostiralean, Ray Lema eta Bulgariako Ahotsak taldea izango da Altsasun.

### BERTSO SAIOAK

**Egaña eta Peñagarikano** bertsolarien egun osoko bertso saioa izango da igandean Atallun. Herriko jaiak direla eta antolatuko dute eta egun osoko saioa izanda, bertso politik egiteko aukera izango dute, dudarik gabe, bi bertsolari hauek.

## NAFAR KRONIKA

GAIZKA ARANGUREN

### Exiliotik, herriminez

Hizki hauek idazten ditudan une honetan asteleheneetik astearterako gaua da. Goizaldeko ordu bata zehazki. Bilbon naiz. Besta giroa da karrikan eta txaranga bat pasa berri da leihopetik. Gaur arratsaldean, Nafarkariaren Zuzendariak hotsegin dit lantokira. Gogoz hartu dut haren deia. Alde batetik, gero eta txaloga-

urrunTASUNA zen. Orain ez. Orain, Euskal Herria nahiz mundu zabalari buruzko informazioak bildu eta hedatzeko kontratatu naute. Ez dut, ordea, halakorik egiten. Euskal Herriaren lur zati baten populazioaren zati batentzat ari naiz. Iruñea lekutan dago. UrrunKERIA da.

Ezin dut Nafarroan argita-

men. Eta erantzuna ez da zaila. Lan eta bizi behar dut. Nire gogoko lana egin nahi dut. Baina horrek, egun, zera dakar: ezinezkoa da EH guztia-  
rendako lanik egin.

Hiru aste bertzerik ez eta askeago sentituko naiz. Nire sena eta kontzientziari muzin egiteari utzi ahal izanen diot. Ez naiz zoriontsu izanen, bai-



rriagoa iruditzen zaidalako pertsona horren lana, eta bestetik, Iruñetik jasotzen nuen deia zelakotz. Zer Txorakeria! erranen duzue. Ba... ez.

Zuetako aunitzi arraroa irudituko zaizuen arren, ez naiz sekula Nafarroatik hain urrun sentitu Euskal Herrian izanik. Bai, EHtik at ibili naizen aldi bakanetan urruntasun hori nabaria zen, baina nire borondatez eta gogoz onartutako

ratzen den egunkaririk irakurri, ezin dut Nafarroako listinean telefonorik aurkitu, ezin dut edozein nafar batuaz egiten duen moduan hitzegin, ezin dut. Ezindua.

Itsasoaren mareari aitzin egitea ezinezkoa den bezala, ezinezkoa zait lantokiaren lan iharduerari eta lan moldeari aitzin egin. Inertzia.


Sarri galdetzen diot nire buruari zertan ari ote naizen he-

na ez naiz horren zoritxarrekoa sentituko.

Baina... ez gaitzen hain pesimistak izan: jaun-andreok, irailaren lehen asteburuan nire herriko bestak dira. Guliakoak. Ezintasun guzti hauek alde batera uzteko aukera izanen dut.


Gola Guria! Gora San Pedro! (Herriko patroia hori dela uste dut, baina hala ez bada... berdin dio).

### ASTEKO PERTSONAIK



**Manolo Campos**  
Etxarri-Aranazko alkate ohia

Manuel Campos Etxarri-Aranazko alkate ohiak epailearen aurrean deklaratu behar izan zuen berriro asteazkenean Espainiako Armadari ez laguntzeagatik, nahiz eta delitu horrengatik jada epaitu eta kondenatu dute. Camposi sei urteko inhabilitazio zigorra ezarri zioten Etxarriko alkate zela soldadutza egin behar zuten herriko gazteen zerrenda ez osatzeagatik, soldadutzaren aurkako agerpen gisa. Gauzak honela, Fiskaltzak berriro deitu du Etxarri-Aranazko alkate ohia eta hogeita minutuz deklaratu behar izan zuen asteazken goizean. Irteeran epaileak berriro zergatik deitu duen zehatz-mehatz ez dakiela erran zuen. Patxi Zabaleta bere abokatuak ere ez dio funtsik ikusten Fiskaltzaren ekimen honi.



**Asier Garcia Fuentes**  
Futbol jokalaria

Asier Athleticceko jokalaria ohiak Osasuna taldean jokatuko du datorren denboraldian, aste honetan baietatu denez. Iruñeko taldea harremanetan jarri zen ostegunean Asierrekin, Rojok atzekaldean zitu arazoak eta konpondu nahi zituelako. Negoziazioak bide onetik doaz eta Asierren ordezkaria den Miguel Santosekin hitz egitea baino ez da falta. Aurretik, Txetxu Rojo Osasunako entrenatzaileari ere Osasun egoteko nahia azaldu zion Athleticceko jokalaria. Gorritxoaren entrenatzailearen hitzetan «dena duen jokalaria» da Asier eta Osasunarentzat oso garrantzitsua izango dela azpimarratu du. Asier Garcia bilbotarrak, beraz, kamiseta gorria jantziko du zurrerik datorren denboraldian.

### AHAZTU GABE!

#### MUSIKA

**Patagonia**, Los Dinosaurios eta Etsaiak taldeek kontzertua eskainiko dute bihar Agoizko pilotalekuan, gaueko ordubatean. Gaupasa Itoizko urtegiaren aurkako kanpaldiaren barruko ekitaldia izango da. Itoizko Koordinakundeak eta Nafarroako Ugatza, LANE, Eguzki, Ongaitz eta Landazuria talde ekologistek antolatua, joan den ostiralean jarri zen martxan kanpaldia eta, urtero bezala, urtegiaren obrak geldiaraztea eskatu dute partehartzaileek. Orain arte ekitaldi ugari burutu dira Itoizko urtegiaren aurka, hitzaldiak, txangoak eta abar. Asteburuan 400 lagun inguru bildu ziren kanpaldian, Nafarroa eta Euskal Herri osoko jendea ez ezik, baita kanpotik ere. Patagonia, Los Dinosaurios eta Etsaiak taldeek bihar eskainiko duten kontzertuarekin hartuko dute parte kanpaldian.

#### JENERO XUMEKOAK

##### Taconera Park

Taconerako harresia eraiki zuenak jakitera etorkizunean ahatetegi bat izango zela ziuraski bajuxeagoa egingo zukeen. Nola gustatzen zaion patuari gure lanak itxustea. Atxagak esan zuenez, «zuek patua aipatzen duzuean zertaz ari zarete zehazki? Lan seguru baten abantailaz edo laranjarekin jaten denaz, sinpleki?».

ELIAS SARASA - ERRO

#### ADI!

##### EUSKALERRIA IRRATIA FM 91.4

Egunero, asteleheneetik ostiralerara, 'Zokobetailu' goizeko 10.00etatik 11.00etara.

##### XORROXIN IRRATIA FM 107.5

Egunero 20.00etati 22.00etara... 'Karakola segi hola' gazteendako saioa.

##### ARALAR IRRATIA FM 106.2

Astean zehar 13.30etatik 14.00etara... Bertako bizilagun eta pertsonai ospetsuei elkarriketak.

##### KARRAPE IRRATIA FM 107.8

Astean zehar, 12.20etatik 12.35etara 'Gauza guztien gainetik' edertasuna eta osasuna, sukaldaritza, ohiturak...

## Filosofiaz

# Mendiko bizikleten topaleku

E.E. / IRUNEA

Elizondo mendiko txirrindularien topaleku izango da larunbatean eta igandean. Izan ere, bertan egingo da mendiko bizikleten Espainiako lehen Itzulian —Transpain 94— parte hartzeko lehen aukeraketa saioa. Jerezen urriaren 8an hasiko da itzulia, eta bertan bost aukeraketa proba egin ondoren sailkatutako txirrindulariek hartuko dute parte. Proba horien bidez, hainbat lekutako paisaiak eta naturaren aberastasuna erakutsi nahi dituzte antolatzaileek. Horretarako, bost ibilbide berèzi prestatu dituzte.

Lehen ibilbideak, erran bezala, Baztan aldera eramango ditu partehartzaileak asteburu honetan eta bihar eta etzi bitartean inguruko herriak ezagutzeko aukera izango dute. Ibilbide gogor eta neketsua izango da baina Jerezen urriaren 8an egon nahi duenak ahaleginak egin beharko ditu.

Biharko ibilbideak Baztango hegoaldeko baserriak zeharkatuko ditu, Lekaroztik atera eta Elizondoraino. Bertatik, Santa Engraziaren ermitara ailegatuko



Mendiko bizikletaren zaleek beteko dute herria.

dira eta hortik, inguruko baserriak bisitatu ondoren, Istauzko bailarara iritsi eta Elizondora itzuliko dira. Hogeita bost kilometroko ibilbidea izango da hau.

Igandean, berriz, Arizkundik aterako dira txirrindulariak eta Santiagoko bide zaharra egingo dute. Itzulegiko gainera ailegata Iparaldeko mugara iritsiko

dira. Ondoren, Alkumuntz mendia igoko dute eta baita Iñaberriko gaina ere. Lekarozen amaituko da ibilbidea.

Elizondokoa bezala, aukeraketa proba bakoitza bi egunetan egingo da eta parte hartu ahal izateko federazioaren lizentzia edukitzea beharrezkoa izango da. Lehen etapa larunbatean izango da beti eta bigarrena igandean. Larunbatekoa izango da gogorra, 25 bat kilometrokoa. Igandekoa ez da hain gogorra izango baina bai luzeagoa. Proba baliagarria izan dadin, txirrindulari bakoitzak egun bietako ibilbideak egin beharko ditu.

Baztanen lehen aukeraketa egin ondoren, beste lau ibilbide daude txirrindulariak hautatzeko. Bigarrena 'Soriako Ibilbidea' izango da, irailaren 3a eta 4a bitarte, eta ondoren, 'Espainia Berdea', irailaren 10 eta 11n. Hurrengo asteburuan, 17 eta 18an, 'Zilarrezko erruta' egingo dute txirrindulariek. Azkenik, Granada izango da txirrindularien topaleku.

## Altsasu



Argazki zahar bat.

## Argazki zaharrak biltzeko kanpaina

IRUNEA

Herriko argazki zaharrak biltzeko kanpaina jarri du martxan Kima taldeak, Udalaren Euskara Batzordea eta Xenda Argazkilariak-ekin batera. Helburua da duela 60 urtetik hona ateratako Altsasuko argazkien artxiboa egitea, Udalak gorde dezan herriaren ondasun gisa, eta asmoa aurten egin zen erakusketak jaso zuen arrakastaren ondotik sortu zen. Argazkiak eman nahi dituenak argazkidendara (San Juan, 15) eraman besterik ez du, eta han kopiak egin eta itzuli egingo dizkiote. Egitasmoak harrera ona baldin badu, erakusketa gehiago egingo lirarteke herrian.

Herri bakoitzak bere filosofia propioa duela irakurri nuen behin. Non ez dut gogoratzen, baina nere irakurketen maila gorena kontuan hartuz, baliteke jakinduriak beteriko esaldi hori Ibañez maisu handiaren argitalpen mardul horietako batena —badakizu, Mortadelo eta Filemon, Pepe Gotera y Otilio, Super Humor bilduman— edo horoskoporen batekoa izatea.

Gauzak horrela, buru argi eta garbia duzun irakurle horrek berehala pentsatuko zenuen «zein da, bada, nafarron Konfuzioa?». Intelektual samarra bazara —ez dut uste txoko honen irakurlearen artean intelektual bakarra ere dagoenik, baina, tira, futbola futbola da, eta erretorika erretorika—, segu-



ruenik Patziku Perurenaren edota Eduardo Gil Beraren izenak ibiliko dituzu buruan, eta, beraz, oker ibiliko zara. Bestalde, bitxikerien laguna bazara, Zabaltza eta haien 'Llamosos Vasconia' eta gainontzeko idazkietaz pentsatzen ariko zara, baina zu ere, lagun maitea —erretorika, berriro ere, ez baitzaitut ezagutzen— oker ibiliko zara.

Herri honetako pentsalaririk handienak ez du zerikusirik goi-mailako jakinduriarekin, herri ezagupenarekin baizik. Ez ditu tratatu gorenak idatzi, eta ez da mintzaldiak ematen dituen horietakoa. Bere filosofia ezagutu nahi duenak gaua du garairik aproposena, eta tabernak topaleku ezinbestekoa.

Gure Konfuzioa gau-txorria da —horregatik ari gara hemen filosofiaz—, Gavilan izenekoa hain zuzen. Berak garatu du Nafarroari buruzko teoriarik hoberen eta iraultzaileena. Asteburuoro eszenatokiz eszenatoki azaltzen duenez Euskal Herria ez da Euskal Herria, Nafarroa handia da haren izena, eta 'Euskadi Nafarroa da' haren borroka oihua. Badakizue, Gavilan, garbiketa anitzen ondolik!

## Biloria

# Juan Satrustegi idazlea omendu zuen Lanaibarko Elkarte Kulturalak

IRUNEA


Juan Satrustegi idazlea omendu zuen Lanaibarko Elkarte Kulturalak joan den larunbatean, herrian egin zen ekitaldi xume baten bidez, eta Minicia Aunia lehen saria eman zioten. Esteban Ugarte taldeko buruak plazan azaldu zuenez, sari honekin Lizarrako idazleak hainbat urtetan erakutsitako jarrera herriar eta bakezalea omendu nahi izan zuten. Sariarekin bat egin zuten Lizarrerriko elkarte eta udal frankok. Satrustegik pren-

tsan eta irratian kolaboratu izan du, eta hiru liburu argitaratu: 'Lizarratik Santiagora bizikletaz', 'Lizarrako istoria zahar eta gaur egungoak' eta 'Anarkista baten memoriak Francoren armadaren erdian'. Hunkiturik jaso zuen omenaldia eta taldeak eskaini zion ohorezko plaka, baina «berak baino merezimendu handiagoa zuten pertsonak» gogorazi zituen.


Omenaldiaren ondotik bi erakusketa zabaldu ziren herrikan. Batean, karriketan barna paraturik, ikazkinekin lotutako

hainbat lanabes ikusten ahal dira, eta baita txondorrak ere. Bestean Lizarrerriko zenbait eskultore eta pintoreren lanak daude ikusgai.

Saria aurten sortu du duela hiru urte jaio zen elkarte honek, eta horren bidez Lizarrerriko jendea omentzea du helburu, norbere bilakaera pertsonal eta kulturala nabarmenduz. Minicia Aunia, erromatarren garaian Lanaibarren lurperatu zuten neska baten izena hartu du sariak, bi izen horiek ibarraren armarrarian ere azaltzen direlako.



Lizarrerriko herrietako kultura zabaldu nahi du elkarteak.



**D**uela 40 urte, Donapaleuko eliza parrokiako ohiturazko festak alaitzeko zer egin ez zekitela, Loulou Barthaburuk ideia berezia ukan zuen. Gaztetako laborarien arteko zeingehiagokak oroitzuz, 'Euskal Indarren Jaialdia' antolatzea bururatu zitzaion Loulouri. Joan den igandean, Indar Jokoen 44. edizioa egin zuten Donapaleun, eta Loulou, mikroa eskuan, bertaratu ziren 5.000 pertsonekin hizketan aritu zen.

## Indarra eta arnasa Donapaleun

HUR GOROSTIAGA / DONAPALEU


Abuztuaren 15aren ondorengo igandean, zortzi herritako atletak bildu ohi dira urtero Donapaleuko Gerazaga pilota plazan. Laneko galtza urdin eta ator xuriz bezituz, herri bakoitzak kolorezko gerriko bereizgarria eduki ohi du. Epaileek, berriz, kronometrolari edo begiztatzailerik ez galtza urdin, ator xuri, lepoko gorri eta buruan txapel gorria. Epaile nagusiak aitzitik, Loulou Barthaburuk, galtza eta ator xuria, gerriko gorria, txamarra beltza, espartin xuriak eta burua txapel beltzez estalirik. Eskuineko eskuan, zilarrezko burua duen makila. Eta azken urteotan, ezkerreko eskuan mikrofonoa izan ohi du, modernitate plaza ere iritxi baita.

Igandean Nafarroa Behereko Donapaleu, Donamartiri, Jutxi, Gabadi, Donazaharre eta Zuberoako Maule, Mithikile eta Urdiñarbe herriak aurrez aurre izan ziren. Proba bakoitzean herriek beren ordezkariak izaten dituzte, proba guztiak sailkapenaren arabera, sailkapen orokorra egi-

teko. Iaz garailea Urdiñarbe izan bazen ere, aurten titulua Donazaharrerat joana da.

Hastapenean zazpi proba egin ohi zituzten. —Segalariak, Orga-Jokoa, Zakulariak, Lasto-Aitxariak, Soka-Tira, Aizkolariak eta Xahakolariak— baina denborarekin Xahakolarien jokoa alde batera gelditu da parrokiako emaztekin sensibilitatea zauritzen zutela eta. Xahakolarien proban, talde bakoitzak, xahakotik arno gehien eta azkarren edaten zuenaren lehiaketa egiten zuten, azkenean, mozkor handiena bilduko zuenak irabaz zezan. Baina proba hori deusezturik, gainerantzeko seiak gaur egun arte iraun dute.

**SEI PROBA GOGOR** Soka-Tirak ez du inolako aurkezpenik behar, ez eta Aizkolarien eta Segalarien probak ere. Hala eta guztiz, aipagarria benetan Soka-Tirako proban Donamartiri-herrikoek 14 urtez segidan irabazi dutela, behin ere galdu gabe. Sokatiran teknika ezberdinak baldin badaude ere, donamartiritarrek hastapenetik erasoari ekiten




diote, bertezen bakoitzak lehenik eustea eta gero erasotzea nahiko dutelarik. Aizkolarien kasuan berriz, partehartzaileei moztu beharreko bi enbor ematen zaizkie, eta bi taula enborrak bertan lotzeko. Talde bakoitzak berak nahi duen gisan lotzen ditu bi enborrak. Igandean, aizkolarien proban Donazaharreko Mattinek

irabazi zuen. Mithikileko Caze-nave aizkolariak ezin izan zuen proba bukatu, enborra ebakitzen ari zela aizkora desbideratu eta hankan zauria egin baitzuen.

Proba bereziei so eginez gero, Lasto-Altzarien probak aparteko ikusgarritasuna izan ohi du. 45 kiloko lasto-meta, lurretik zortzi metrora dagoen txirrika bati lo-

zuzen zaio. Talde bakoitzeko ordezkariak, lasto-meta ahalik eta aldi gehienetan altxatu beharko du, bi minutuko epean. Une horretan lau metro baino gorago jautsi ikusgarriak ikus daitezke, partehartzaileak sokari eutsirik, lastoa beherantz doalarik sortutako inertzia baliatzen baitu sokarekin batera igotzeko, eta on-



Donapaleuko jaialdi honetan Hegoaldean ezezagunak diren herri kirol mota zenbait ikusten ahal dira, hala nola lasto altxatzea edo gurdi jokoa. HUR GOROSTIAGA

doren, gorputzaren pisuarekin batera indar egiteko. Hala ere, proba honetan teknika ezberdinak daude, batzuek nahiago baitute txirrika ezarriko dagoen pazotearen oinean geratu, ala alde batera korrika egin sokaren tiratzeko. Donapaleun berdinak izan zen, Donamartiriko Bederrek eta Mithikileko Etxantxuk 16 altxaldi egin baitzuzten bakoitzak.

Orga-Jokoak ere, indarra eta arnasa ongi kontrolatzea eskatzen du. Joan den igandean Donamartiriko Pezanburuk proba goitik-behera menperatu zuen, indarra behar bezala dosifikatuz. Partehartzaileek 356 kilo pisatzen duen orga altxatu beharra dute, ardatza zirkuluaren zentroan loturik duen orgari itzuliak emateko. Proba honetako bi partaidek arnas-estuka bukatu zuten, egin beharreko lanaren gogortasunagatik. Zakulariaren proba, azkenik, Donazaharreko Lapizek irabazi zuen.

Bi proben arteko tartean, berriz, aurten Zuberoako dantzariak ikuskizun eder eta zuten. Godalet dantzak batez ere, beti sortu ohi du kuriositatea eta ikusmira. Txararangak, berriz, atzetik datorren probarako prestatutzak egiteko denbora ezin hobeki betetzen lagun du. Lau oreneko ekitaldiak zahar eta gazteenen txalo eta algarak jasoz zuten Amikuzeko eguzki printzen goxotasunean.



## Jaialdi franko eztabaidatsua

H.G. / BAIONA

Gaur egun gauza gehienekin gertatu ohi den gisan, Donapaleuko Indar Jokoen ez dute aho batasuna egiten bertako biztanleengan. Tamalez anitzek gorroto dute egun hori, Indar Jokoen herriko kirol izatetik, kanpotarrentzako ikuskizun bilakatu direla salatzen baitute. Horregatik bertakoek, 'Forzza Basca' iseka egiteko izena ezarri diote egun horri.

Azken urteotan, aldiro lau mila eta bost mila pertsona inguru bildu ohi ditu Donapaleuko Indar Jokoen Jaialdiak Gerezaga pilota plazan. Euskal Herriko musikak eta dantzek bat egiten dute antzi-

nako laborarien ohiturekin eta nahasketa guztiz ikusgarria eta jostagarria izaten da. Hala ere kontuan hartu beharrekoa da ikuslearen parte handiena edo gehiengo, turista izan ohi dela eta bere garaian ekitaldiek zuten izaera herrikoia geroz eta xime-lagoa dela.

Barthabururen partehartzea nardagarri gerta daiteke behin baino gehiagotan. Publiko turistari zuzendurik, «orain jarri, orain jaiki, orain txalo egin» errateak, norberaren estima nonbait galdurik ote dagoen galdigera garamatza. Barthabururen aurkezle lana askok iraintzat daukate, publiko guztiz ezjakitunarentzat ele egiten baitu.

Horrez gain kultura eta folkloreak arteko muga gaindituz geratzen da batzuek, ezabaturik bertzeendako. Ildo beretik, plaza ikurrinez hornituz egon ohi da eta ez da frantses banderaren arrastorik ageri. Eta horri ez zaio atzeko asmorik to-patu behar.

Zenbait hitz tekniko edo esaldi laburrez salbu, euskarak ez du lekuz tipiena ere, frantsesez egiten baita dena. Euskara Orga-Jokoan, partehartzaileek egiten dituzten kontaketa «bat, bi, hiru, lau, ...» eta Lasto-Altzari jokoa lasto-meta garaino iristen denean errateko «jo!» erabili ohi dute. Antolatzaile guztiek edo gehienek euskara badakite,

**I**gandean Nafarroa Behereko eta Zuberoako herriak aurrez aurre izan ziren. Iaz garailea Urdiñarbe izan bazen ere, aurten Donazaharrerat joan da titulua.

**E**kitaldi honekin, baina, kultura eta folkloreak arteko muga gaindituz geratzen da batzuek, ezabaturik bertzeendako.

baina egun horretan ere etxean utzi ohi dute.

Hala ere, kirol ikuspuntutik begiraturik, egunak bere interesa atxikitzen du. Egia da askotan partehartzaileek espantu egiten dutela probaren bat edo bertze irabaztean. Baina egia erran, egindako ahaleginak txalo zaparrada merezi ohi du. Lehiaketarako orduan, daukaten guztia ematen dutela argi geratzen da, igandean lurrean etzanik edo zauriturik bukatu zuten lehiakideak lekuko.

Zortzi herriak bat bertzearen auzokoak izanki, beren arteko xixta puntua argia da, Euskal Herriko bertze eskualde guztietan gertatu ohi den bezala. Auzoko herriaren aurka desafioa galtzeak, norberaren ohorearekin topo egiten du frankotan. Horrez gain, haizeak beti ekarri ohi ditu partehartzaileen arteko apustuen zurrumurririk, nahiz eta ofizialki guztiz debekaturik egon.


Sarrera berrogeita hamar libera kosta ohi da, baina lau oreneko ikuskizunak merezi duela erran daiteke, batez ere uda garaian antolatzen diren bertze ekitaldiekin konpartuz gero. Hala ere herrikoek herrikoen lana apreziatzeko ordaindu beharra gogorra gerta liteke zenbaitean.

Herriko politikoaren presentzia ere nabaria izan ohi da beti ere. Igandean Mixel Intxauspe Donibane-Garaziko parlamentaria bertan zen sariren bat edo bertze emateko. Christian Sapede Baionako suprefetak ere ez zuen ekitaldia huts egin, ez eta Agerre Amikuzeko kontseilari nagusiak, ez eta Donapaleuko Lassalle auzapezak ere. Komunikabideek ere ez dute huts egin ohi, egun berezi hori.

Azkenik, Euskal Herriko Herri Kirolen berri zehatza ukan nahiko lukeenak, igande honetan du hitzordu. Baionako Zezen Plazan, zazpi probintziako lehiakideek bat egiten dute goizeko zortzi terdiatik aitzina. Finalak arratsaldeko bost terdiatik aurrera.



## XAKEAN



Nafarroako taldekako Xake Txapelketako bigarren ihardunaldiko partida, 1993ko urriaren 23an jokatua.

Pablo Del Rio, 2.130 ELOkoa (Iruñeko Runa 'A')—J.J.Cortes, 2.255 ELOkoa (Iruñeko Anaitasuna).

1.d4, Zf6; 2.c4,c5; 3.d5,g6; 4.Zc3,Ag7; 5.e4,d6; 6.f4,0-0; 7.Zf3,e6; 8.Ae2,d5; 9.c-d5,b5. 'Ab5' eginen balute txuriek, 9...,Ze4; 10.Ze4,Da5 xa; 11.Zc3,Ac3; 12.c3,Db5. 10.e5,e5; 11.e5,Zg4; 12.0-0. Ikus koadroa. Ideia ona dirudi: 12...,Ze5; 13.Ze5,Ae5; 14.Ah6,Gd1; 15.Ab5,Gd2. Erasoa txurien litzateke. Baina gero bestelakoa gertatu zen. 12...,Ze5; 13.Ze5,Ae5; 14.Ah6,Dh4. Partida erabakita geratu da: 15..., Ah2 xa; 16.Eh1,Ag3 xa; 17.Eg1,Dh2 xa mate. Txuriek eman behar dute alfila. 15.h3,Dh6; 16. d6,De3 xa; 17.Gf2. 'Ag3' jokaldiak txuriak erabat hondatuko lituzke. Baina kalkulo oker batek edo ikusgarri izateko ahaleginak partida hein batean berdindu, eta erasoko joko polita eraginen du.

17...,Zc6; 18. Af3,Zd4; 19.Aa8,Dg3; 20.Gf3,Dh2 xa; 21.Ef2,Zf3; 22.Df3,Ad4 xa; 23.Ee2,b4; 24.Ze4,Aa6 xa; 25.Ed2,De5; 26.Ge1,Ga8; 27.Zf6 xa, Df6; 28.Da8 xa, Eg7; 29.Df3,Dd6; 30.Ec1,Ab2 xa; 31.Eb1,Ad3 xa. Matea, dama eman ezean, galarazteza da: 32.Eb2,Dd4 xa; 33.Eb3,Dc3 xa; 34.Ea4,Da3 xa mate. Partida ikusgarria izan da beltzen aldetik, baina hain polita egiteko beharrik ez zuten.

Lore hamaika urtetako neskatxa bat da, bere ilea horia eta disdiratsua da. Bere begi urdinak beti pozez beterik daude. Lore ez da neska bihurria oso zintzoa baizik, baina noski, noizbehinka bihurrikeriren bat eskapatzen zaio. Jendeak errespetatzen duen neska bat da. Berak neri esan didanez oso gogoko ditu esperimenduak. Amak gelara zigortua bidaltzen duenean esperimenduak egiten hasten da.

Horrela gertatu zitzaion lehengo hilabetean, Lorek nahi gabe koadro bat puskatu zuelako gelara bidali zuen amak. Normala den bezala Lore esperimendu bat egiten hasi zen. B a i n a , dzasssssssss!!, argi dizdiratu batek ingururik, lainoz eta argiz beteriko baso batean agertu zen.

Baso hartako txuriek ez zuten abesten, eta zuhaitzak oso ximeldurik zeuden. Urrutian etxe bat zegoen eta Lorek hara hurbilduta esan zuten:

—Ba al dago norbait etxean?

—Sartu Lore! Beldurrik gabe sartu! Zure laguna naiz— erantzun zion ahots leun batek.


Lore beldurtuta sartu zen eta han emakume eder bat aurkitu zuen.

—Agertuko ez zinela usten nuen— esan zion emakumeak.

—Nor zara zu? Nola duzu izena? Zergatik nago hemen?

—Lasai zaitetz Lore. Ni, bihotz oneko sorgin bat naiz eta Laino dut izena. Nik, gelditzen zaizkidan ahalmen gutxiek in ekarri zaitut zure laguntza behar dut eta.

## Gaua bilatzen



## Saioa Ataun

(BERA)

—Baso honetan orain dela bi urte ez dago gaurik eta gaurik gabe nire ahalmenak galduz hil egingo naiz. Horregatik —jarraitu zuen Lainok— zuk gaua harrapatzen lagunduko didazu.

—Baina... nik...—esan zuen Lorek.

—Ez dago bainarik Lore, egin dezaitezulako ekarri zaitut; orain lo egitea izango duzu hoberena, bihar goizean goiz hasi behar duzu eta.

Lore ohean sartu bezain laister lo geratu zen. Hurrengo goizean inoiz baino goizago jaiki zen etxea nolakoa zen ikusteko. Gela asko zeuzkan baina denak altzari modernoek apainduak. Ate txiki-txo bat zegoen saloian, ireki zuen eta

ooooo!

Detektagailuak egiteko tresnak zeuden han, eta zitzu bizian Lorek gaua bilatzeko detektagailua aurkitu zuen. Laino esnatu eta dena kontatu zion. Handik pixka batera detektagailua martxan jarri eta bere arrastoari jarraituz gaua aurkitu zuen. Gaua, Laino eta Lore, Lainoren etxera joan ziren.


Lainok, erregala bezela, ahalmen bat eman zion Loreri. Bai, berak nahi zituen gauzak txalo bate-

kin lor zitzakeela.

—Agur lagunak! —izan ziren Loreren azkenengo hitzak, txalo bat jo eta etxean bait zegoen.

—Lore lo egizu bihar ikastolara joan behar duzu eta— oihiu egin zion amak.

—Bai, bai lasai— erantzun zion Lorek eta ohean sartzerakoan pentsatu zuen: «Jakingo bazenu zer gertatu zaidan»— eta lo geratu zen.



## JUANTXO URDIROZ

## Mendabiako ojankoak (eta II)

Begizar guztiak afaltzen ari ziren gelaraino jarraiki zioten. Bazen han 'aitatxi' izeneko aguretxo bat, begizarren artaldeko artzaina. Mahaiaren ondoan katuak ikaragarriko haragi pusketak jaten ari ziren. Begizarrek esan zioten:

—Afal ezazue, afal ezazue, afal ezazue.

—Afaldu dugu— erantzun zioten agindua ez betetzeko, afarian giza haragia jaten ari baitzen. Hala ere begizarrak haserre ez zitezen, jaten ari zirenarena egin zuten. Sobera zuten haragia mahai azpiko katuei ematen zieten begizarrak. Begizar nagusiak besteek esan zien:

—Bihar eguerdian bi fraide hauek jango ditugu.

Fraideek aditu egin zuten hori eta erabat izuturik gelditu ziren. Baina txikienak estrategia bat taxutu egin zuen ospa egiteko. Afaria amaitu zenean, begizar nagusiak esan zuten:

—Oheratzeko ordua da.

—Bai —esan zuen aitatxi— oheratzeko ordua da, bihar artaldea oihanera eramane beharra da eta.

Isiltasuna nagusi zelarik, sukaldaria joan ziren fraideak eta burdin bat berotu egin zuten, harik eta gorri-gorria ezarri arte. Begizar nagusia lotan zegoen. Kasu



Ez usteak zure atean joka

Giza haragia jaten ari ziren, baina begizarrak haserre ez zitezen jaten ari zirenarena egin zuten.

haundiz harengana hurbildu, eta txikienak bere begi bakarrean sartu zion burdina. Erraldoia garrasika hasi zen, oinazeak bihurrituz. Fraideak segituan izkutatu egin ziren artaldean, behitegi bait zen. Hantxe bi arkume akabatu eta larruekin beraien buruak estali zituzten, begizar nagusiak ukitzean ezagut ez zitzen. Fraide haundia beldur baitzen, bere zintzarriak soinatzten zuten 'delen-delen', hau da, ezetz-ezetz. Txikiaren zintzarriak, berriz, zioen 'dalaien-dalaien', hots, baietz-baietz. Begizarrak onetatik aterata hankaz gora paratu zuten etxea, baina ez zituzten fraideak bilatu.

Argitu zuen eta aitatxiak pentsatu zuen: «Bada artaldea mendira eramateko ordua». Behitegi-ra joan zen artaldea ateratzera. Baina begizar nagusia atarian

ezarri zen. Ardiak banan banan miatu zituen, behitegiak atera ahala, baina artillerik baino ez zuen ukitu. Bi fraideak mendian libro zeudelarik begizarrei oihiu-katu zieten:

—Ez diegu beldurrrrik, astakaikuak.

Eta begizarrek, guztiz asaldaturik, etxeak bezain haundiak ziren harriak botatzen zizkieten fraideei.

Honaino ipuina. Eta bukatzeko ohar bat. Lehenagoko ipuinak oso odoltsuak ziren. Orain, umeentzako ipuin askotan ez da ezta odol tanta bat ere isurtzen. Mesedez, bete ditzagun gure ipuinak erraldoi gizajalez, eta atera ditzagun gure telebistatik egiazko hiltzaile horiek, gure etxe azpian aurki ditzakegunak. Ojankoak bakarrik Mendabian bizi dira, sikira.

**U**gatza talde ekologistak antolatuta, uztailaz geroztik martxan dago Lindusen hegaztien migrazioa aztertzeke paratu duten behatokia, eta azaroa bitartean bertan izango dira Euskal Herri osoko begiraleak. Hegaztiak betidanik migratu dute negurik gabeko urtea igarotzeko asmoz eta azken urteotan egindako azterketek migrazioei buruzko informazio ugari argitu dute, baina gauza asko dago oraindik argitu gabe. Horretarakoxe prestatu du Ugatza talde ekologistak behatokia Lindusen.

## Negurik ez hegaztientzat

EDURNE ELIZONDO / IRUNEA

Ugatza talde ekologistaren eskutik, uztailaz geroztik martxan dago Lindusen hegaztien migrazioa aztertzeke behatokia, Orreagatik hurbil, Ibañetako gainatik hiru bat kilometrora. Azarora bitartean, Europako iparraldetik hegoalderantz doazen hegaztiak ikusi ahal izango dituzte bertan bilduta dauden ornitologo eta begiraleak. Negua pasata, berriro jaioterrira itzuliko dira hegaztiak arrautzak errutera.

Gizakiak betidanik ezagutzen du hegaztien migrazioa baina historian zehar oso azalpen ezberdinak eman dizkio: hegaztiak hiltzen zirela, sexua aldatzen zutela eta beste hainbat istorio. Baina denbora aurrera joan ahala eta fenomeno hau aztertu eta ikertu dutenen lanari esker, gaur egun gauza asko argitu da hegaztien migrazioari buruz. Beste hainbat gauza, ordea, ez dakite oraindik.

Migrazioa azaltzeko asmoz, negurik gabeko urtea igaro ahal izateko animalia askok egiten duten bidaia dela erran daiteke. Negua gertu sentitu bezain pronto, hegadak ireki eta hegoalderantz abiatzen dira eguraldi goxoagoa aurkitzeko asmoz, hegaztiak eta beste hainbeste animaliak.

Neguko haize hotza atzean uztea migratzeko arrazoi garrantzitsua bada ere, ez da hori bakarria ezta funtsezkoena ere. Izan ere, janari bila abiatzen dira

beste nonbaitera hegaztiak. Ehundaka eta milaka kilometroko bidaiari ekingo diote janari bila. Hala ere, hegazti guztien kasua ez da berbera eta bakoitzak migrazio ezberdina egiten du. Urtaro bakoitzak ematen duenarenekin bizitzeko adina duten hegaztiak ez dute migratzeko beharrik. Janari jakina behar dutenek, ordea, beste nonbait bilatu beharko dute neguak estaltzen duena.

Neguan bizilekuaren itxura aldatu egiten da eta hegaztiak zailtasun askori egin behar diote aurre. Egoera larritu egiten da kontuan hartuz hegaztiak energia gehiago behar dutela urtaro honetan, bai metabolismoa zein gorputzeko tenperaturari eusteko. Hegaztiak, behar dituen inaktuak aurkitzen ez baditu edo jateko arrainik lortzen ez badu ibaiak izoztuta daudelako, beste nonbaitera alde egin beharko du.

Migrazioak ere, espezie bakoitzaren aukeraketa naturala egiteko balio du, bidaia luze horretan hegazti asko hil egingo baita. Horrek, bestalde, urtaro eta leku guztietako naturaren baliabideak aprobetxatzen direla erran nahi du, hainbat espezieren egoera hobetuz, azken finean.

**URTERO MIGRAZIO BIKOITZA** Urtean zehar migrazio bikoitza ematen da. Lehenengoan, uztaila eta azaroa bitartean, iparraldetik hegoaldera abiatzen dira hegaztiak gure hemisferioan. Bigarrena urtarrilean



Amiamoko beltzaren migrazio garaia abuztuaren bukaeran hasten da.

hasten da hegazti mota goiztiarrentzat eta ekaina bitartera luzatuko da berantiarrentzat. Oraingoan hegoaldeetik iparraldera itzuliko dira hegaztiak arrautzak jarri asmoz. Beraz, ia urte osoan zehar ikus daitezke hegaztiak migratzen.

Bidaia luze hori egin ahal izateko metodo ezberdina du hegazti mota bakoitzak, baita mota bereko hainbat hegazti ere. Batzuek, kode genetikoren bat erabiliko balute bezala, inork bidea erakutsi gabe, lehenengoz bakarrik egiten dute bidaia. Gaur egun egiten duten hegaztiak, berriz, izarrez baliatzen dira helmugara ailegatzeko. Hala ere, goibelek estalitako egunetan norabidea nola aurkitzen duten bezalako galderek oraindik ez dute erantzunik. Batzuen ustez,

Lurraren eremu magnetikoa ere erabiltzen dute hegaztiak euren bidaietan.

Bestalde, bidaia egin ahal izateko indarra lortzeko modu ezberdina dute hegaztiak ere. Batzuk, ahalik eta koipe gehien biltzen saiatzen dira bidaiari ekin

aurretik eta kilometro guztiak egin ahal izateko, bidaiatzen ari diren bitartean ez baitute jaten. Beste batzuk ordea, argaldu egiten dira ahalik eta pisu gutxien izanda bidaia errezagoa izan dadin. Enarek berriz, airean dauden bitartean jaten dute.

## Hamar urteko lana

E.E. / IRUNEA

■ Gaur egun Ugatzako kideak diren lagun talde batek, Pirinioetako lehen behatokia sortu zuen orain dela hogeitun urte. Ekimen honek, hala ere, ez zuen jarraipenik izan duela hamar urte ingurura arte. Izan ere, hamar bat urte pasatu dira Ugatzak bere lehen behatokia martxan jarri zuenetik. Hasieran, migrazio denboraldi osoan zehar martxan egon beharrean, migrazio handiena egiten zen unean egoten ziren begiraleak Lindusen. Azken bi urteetan denboraldi osoko migrazioa aztertu dute.

Aurten, ornitologo gehienak eta lanik gogorrena egingo dutenak nafarrak badira ere, Euskal Herri osoko eta baita Espainia eta Frantziako ornitologoak ere egongo dira behatokian, besteak beste. Hala ere, hauen lana ez da hegaztien errolda egitea, baizik eta urtetik urtera Pirinioetatik pasatzen diren hegazti motak zehaztea. Horrela, urte bakoitzeko datuak aztertuz, hegaztien kopurua handiagoa edo txikiagoa den eta beste emaitza batzuk lortzen dituzte.

Egunak goiz hasten dira Lindusko behatzaileentzat, Pirinioak zeharkatzeko lehen orduak aukeratzen baitituzte hainbat hegazti. «Gutxienez bi begirale egoten dira beti hegaztien zain» azaltzen du Maria Jose Arzoz Ugatza taldekoak. Hala ere, bisitarietara migrazioari buruz informazio eskaintzeko asmoz, laguntzaile asko dituzte. Izan ere, bisitari ugari hurbiltzen da behatokira, batez ere asteburuetan. «Interes handia dute», dio Arzozek.

Ugatzako kideei gogorik ez zaie falta baina arazoak ere badituzte. Azken hamar urte hauetan jasotako datu guztiak ezin izan dituzte oraindik argitaratu. «Ugatzak ez du dirulaguntzarik jasotzen, beraz ezinezkoa zaigu orain arte bildu ditugun eta urterotik biltzen ditugun datuak argitaratzea. Lan handia egin dugu eta lortu ditugun emaitzak oso garrantzitsuak dira baina tamalez, jendeak ezin ditu jaso». Maria Jose Arzozen ustez, Nafarroako Gobernuaren erantzukizuna da hau. Orain arte behintzat, Nafarroako Gobernuak ez du ezer egin datu hauek argitaratzearren.



Hegazti gehienak Iparraldetik datoz, hotzetik ihesi.

## «Hauxe zen unea»

A. BARANDIARAN / IRUÑEA


**EGUNKARIA.**— Hainbeste denboran itxaron ondoren, es-treinako partidua irabazi eta kritika onak jasotzea pozgarria izango da. Nola bizi zenuen larunbateko lehen partidu hura?

**OSCAR INSAUSTI.**— Denbora asko neraman une horren zain, iazko abendutik, hain zuzen. Orduan izan nuen mina, eta zer zen jakin ahal izan nuen arte atzeratu zen nere debuta. Gero tendinitisa izan nuen, eta orain, urrats hori eman eta gero, atsedean handia sentitu dut, lasaitasuna, profesionalen hasi naizelako, eta konturatu naizelako gogoz nagoela. Partiduarekin oso pozik gelditu nintzen, irabazten has-teak animoa ematen dizulako. Baina ez zen oso ona izan. Bizi-bizian jokatu zen, eta pilota asko galdu ziren, errazegi.

**EGUNKARIA.**— Asegarcerena baino lehenago beste hainbat eskaintza izan zenituen profesionalen aritzeko. Zergatik ez zenituen onartu?

**INSAUSTI.**— Lehendabizik o eskaintza 22 urte nituela jaso nuen, Gasteizko Mundialaren ondotik, eta orduan nik banuen egoera ona, lasaia. Lanean ari nintzen, eta klaseak ematen nituen Iruñeko Tennis Cluben. Ez nuen erabakirik hartu, besteak beste eskaintzen zidate-nak ez zuelako zer ikusirik orain eskaini didatenarekin. Orain, Asegarcerekin, lehen ez zeuden baliabideak daude, eta sartu den jendea dena ematen ari da pilotaren alde. Gainera, komunikabideen eta telebista-ren laguntza guztia dute. Beraz, oraingo eskaintza ezin genuen pasatzen utzi. Orain badugu esperientzia, mundiale-tan eta Olinpiadetan aritu ondoren, eta gutxi falta zen urratsa emateko. Une egokia da jauzia emateko: badauzkat jokatze-ko zenbait urte —lesioekin suertea izanez gero—, eta lehen ez nuen esperientzia.

**EGUNKARIA.**— Lehen eskaintza jaso zenuenetik, beraz, zortzi urte pasatu dira. Ez duzu



Oscar Insausti, Iruñean.

JOXE LACALLE

inoiz pentsatu ez zinela profesionala izango?

**INSAUSTI.**— Asegarcek deitu arte ez nuen uste profesionalen ariko nintzenik. Nere asmoa zen afizionatueta jarraitzea, eta hor amaitzea. Tartean izan ziren eskaintza batzuk, eta denei ezetz esan nien. Baina Asegarce sartu zenean, be-

Hucha eta Claudio Beitia ere hor aritu dira. Beraz, lesioak dira erabakigarriak, ez urteak. Ongi zainduz gero, luzea izan daiteke pilotariaren bizitza. Oso garrantzitsua da norberaren bizitza eta jokatze-ko posturak. Eta, egia esanda, ne-reak ez dira oso onak. Beti aritzen naiz zeharka, eta oso

«Asegarcek deitu arte ez nuen uste profesionalen ariko nintzenik. Nire asmoa zen afizionatueta jarraitzea, eta hor amaitzea».

rriro planteatu nuen dena. Duda-kan izan nituen, baina asko pentsatu ondoren, erabakia hartu nuen.

**EGUNKARIA.**— 30 urteek ez dute gehiegi pisatuko?

**INSAUSTI.**— Pilotan ez dira gehiegi. Manolo Iturri izan da palan onena, dudarik gabe, eta 43 urterekin utzi zuen. Jorge

saiatuak dira. Baina nik uste dut urte batzuetan jokatu ahal izango dudala.

**EGUNKARIA.**— Iturri eta Beitia-aren kasuak aipatu dituzu, urte luzeetan aritu direnak. Jende falta edo klase sobera?

**INSAUSTI.**— Palista handiak izan dira azken urteotan. Iturri-rikz gainera, Huchak izuga-

rrizko kalitatea zeukan, Beitia, Goldarazena... palista ederrak denak.

**EGUNKARIA.**— Danielek, Juan Pablok, Garridok, zuk, denek egin duzue jauzia batera. Baten batek 'iraultza' hitza ere aipatu du palaren munduan. Zer eskain dezakezue?

**INSAUSTI.**— Palak bazuen aurretik nahiko maila ona, eta Bilboko Deportivo frontoian lan handia egin da ikuskizun ederra eskaintzeko. Beraz, nik uste dut gauza politak egin daitezkeela. Guk eskaini dezakegu berritasun kutsu hori: jendeak gustuko ditu aurpegi berriak, jakiteko bakoitzak zer eman behar duen. Denok emango diogu pilotari gure zatia, denen artean ahal bezain gora heltzen saiatuko gara.

**EGUNKARIA.**— Zure arazo nagusia lesioak izan dira, eta oraindik egin gabe zaudela aipatu da. Zer-nola ikusten duzu zeure burua alde fisikoan maila honi aurre egiteko?

**INSAUSTI.**— Badakit gorputza zaindu egin behar dudala, nere posturak ez direlako egokie-nak palan aritzeko. Egin behar dudana da giharreak landu, eta ariketa franko egin. Badakit besteak baino gogorragoa dela modalitate hau, baina ez du zergatik arazorik eman. Gorputza ohituratuko da azkenean.

**EGUNKARIA.**— Pala beti Bizkaian eta Gipuzkoan jokatu izan da, baina Nafarroan urri. Zergatik?


**INSAUSTI.**— Lehen, palan jokatze-ko, behar zen zerbait. Hemen ez zegoen frontoirik, eta profesional gutxi. Eta ziren horiek oso gutxi kobratzen zuten, palak beste modalitateek baino askoz baliabide gutxiago zituelako.

**EGUNKARIA.**— Manolo Iturri izan zen azken figura, eta bere tokia hartzen ari zela hil zen Jose Mari Iturzaeta. Zeinek hartuko du orain lekukoa?

**INSAUSTI.**— Ez da lehen bezalako nagusitasunik izango. Orain uste dut denok nahiko parekatuta ariko garela —edo direla, nik ez baitakit nola erantzungo dudana—, eta aurrean izango garela.

## Oscar Insausti

PILOTARIA



SOSLAIA

## Urrezko pala

Joan den larunbatean egin zuen debuta profesionalen Oscar Insausti palista nafarrak, Bilboko Deportivo frontoian. Estreino-ko partidua jokatu, eta erraz nagusitu. Horrela amaitu zen iruindarrarendako urte luzea izan den hau, profesionalen aritzeko eskaintza jaso zuenetik lesioek trabak besterik ez baitizkiote jarri. Urrea Bartzelonako Olinpiadetan eta munduko hiru txapelketetan —Uruguay, Gasteiz eta Kubakoan—, palako jokalaririk garrantzitsuenetakoa zen, baina kosta egin zaio azken urratsa ematea. Orain, Asegarcerekin eta beste baldintza batzuekin, erabakia hartu du. Bera izango da, Gorostiza eta Arzelusekin batera, palan ariko den profesional nafar bakarra.

## NOSKIJATOR

© Zaldi Eroak

